Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Aintzane Telleria Madariaga

Bermeo
Bizkaia (1931)



Aurkibidea

Biografia



Intxausti kalean jaio eta hazi zen. Aita berak bi urte eta erdi zituela hil zen, Izaro eta Osasuna baporeek elkar jo eta 11 gizon hil ostean. Bere osaba ere ezbehar horretan zendu zen; hori dela-eta, bere ahizpa eta bere lehengusu-lehengusinekin hazi zen neba-arreba moduan. Ama Agirre auzoko Pellune baserrikoa zuen, eta kalearen eta baserriaren artean igaro zuten bizimodua, gerrak ere baserrian harrapatu baitzuen. 14 urtera arte karmeldarren ikastetxean ibili zen. Kontserba-lantegiko beharra ez zitzaionez gustatu, ahizpagaz batera zabaldu zuen Teodoro Anasagasti kalean janari-denda. Bermeoko lehen ikastolako fundatzaileetako da bat Aintzane. Senarra arrantzalea izan zuen eta seme bat izan zuten. Elkarrizketa egin baino urte batzuk lehenago, Agirreko Auzoko baserrira joan ziren bizitzera.

Zintak

BRM-096

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-10-19
- **Iraupena**: 68 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

BRM-097

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-10-19
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Bi urterekin umezurtz

- **Erref**: BRM-096/002
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:02:44. **Bukatu**: 00:04:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ama eta izeko egun berean alargundu ziren. Bi barku hondoratu eta 11 gizon hil ziren. Bi urte zituen Aintzanek eta bederatzi hilabete ahizpa txikiak. Izekok beste hiru ume zituen. Etxe batera joan ziren denak bizitzera. Neba-arrebak bezala izan dira bostak. Portuan eta baserrian egin behar izan zuten amek familia aurrera ateratzeko.

Transkripzioa
-Nire ama ta e izeko egun baten alargundu zien. Isaro ta Osasuna izan zien motorrak. Itxo zien bidxek, hamaike gixon itxo zien orduen. Nire aiztik okin dxau hamar egun San Roke egunin indxe, ta nik urte bi txe erdi gehidxau. Aizte bidxek ein bi’zan dauielez bihar etze batera dxun gañen bizitzen aizte bidxek ta bost; harek okin’txuz, nire izekok okin’txus mutil bi ta neska bat. Mutillek okin dxau bost urte, a zaharrautxuaue zan ta, Iñakik okin dxau nik paño zazpi hilllebete gidxau, ta nire lengusiñiek okin dxau zazpi hillebete nik paño...nire aiztiek paño gidxau, oxa, nire aiztiek ta lenguxíñiek, aiztek, neba-arrebatzak in gari beti, ze hasi gariez imetatik, bularra artzi zan dauie amana bidxena, zaindxen eitxen zan dauie bihar ta klaro, harek bosta, bost urteko mutillek, Dxulenek, harek itxen zan gaitxus gu dxabon, baie horretan holan gauzela, ez dauielez okin ezelako dirorik, danatara in dxauie bihar: portuen in dxauie bihar, ligorrien baserridxen in dxauie bihar, txarridxek hiltzen in dxauie bihar, saltzien horrek txarridxek gu manteniteko.

2. Bermeotik Bakiora ihesi gerra denboran

- **Erref**: BRM-096/003
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:04:04. **Bukatu**: 00:07:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Gerrak baserrian harrapatu zuen Aintzane. Bakioko baserri batera joan ziren, baina bidean osaba galdu zuten. Agertu zen halakoren batean begia galduta. Laster itzuli ziren handik eta etxea soldadu italiarrez beteta aurkitu zuten. Ez zuten haiek eskainitako ogia hartu nahi izan.

Transkripzioa
-Bai klaro, or bitxartien, gerrie etor da, ta gu baserrire etorten zan gari asko. Hamen baserridxen atrapa gaitxuzen gerriek, lenguso zahar bidxek eta neu. Txiki bidxek geratu zien amagaz herridxen. Hor hasi zien tiroteuen

pakun-pakun-pakun, atxiñeko horrek zerak, ta gu izeko Eragonegaz asto baten egin gariz hametik urten pentsa, atxiñeko gauzek zelan pentsaten diz e, ez doskule in bihar ezer, goitxik ikusten abioiek ta gu geure astotxugaz hirurok ta izeko. Baserri bet dau haur Bakidxon onduen, dakona Urkidi izena, hara dxun gañen, han ein dxusen hiru-lau egun. Baie horreta baten, horretako nire amak eta neba bat okin dxauie, ez tana esan e santue, normaltxue esatiles, atakikas on zan geratute, baie guk dana enteniten zantzaku; ta a koitxadue geugaz batera, behi bategaz urten zauen ta ha ze in dxaskun? Piñudidxen hor, galdu. Gu allega garisen hara Urkidire, ta osaba falta, osaba falta, gaue pasa ta agertuten ez, zer pasaten ete datzo geure osaba koitxaduri? Halako baten, beste eguni, bigarrenien agertu zan, ta behidxe, begidxe galdute, da berari ezebe pasa bez. Haur, gero ba pasa du hiru-lau egun; ta pasa danien hori, ze hor esaten zan dauie italianuek “Aquí morir y allí resusitar”, entzu’zu? Koitxaduek, inuxentiek zelan etor dizen, ta hor ikusten zan du guk, hortik bera zer otor dan. Hiru-lau eindxe, egun eindxe, etor garizen, topa dun hori Pellune dako gure baserridxek izena, Pellune...
-Pellune?
-Pelluna, bai, ta or topa duzen italianuek. Jesus zemat italiano! Zer okin zauien e gauzie ba! Muñeka, ogi, gauze... baie etze guztidxe destrosata, katxarro gustidxek atata, ze hor okitzen zan du solo eder bat, mallukidxekaz, mallukidxekaz eskandalue okitzen zan du hor mallukidxek. Harek mallukidxek dxanda, ta klaro, harek behitxuek gero, txaltxue in dxoskun han tartien, entzutezu? Ta ha txaltxue ekar dun karruen, burdidxe esaten zan ¸jatzon atxiñen, burdidxe, ta heurek hareri erreberentzidxek eta ez dai pa zer pentsaten zan dauie, jangoiku dala edo, nik ez daitz, hareri erreberentzidxek ta mosuke, ta gu haulako betondue imindxe hirurok, sei urte okintaz, bestiek bos gehidxau, hiru gehidxau, ba sei tze hiru beratzi ezta? Ta bestiek ba zazpi hillebete gehidxau, ta geuri, guk ezebe hartun bez, haunen besteko ogidxek, atxiñeko harek ogi handidxek, ta geuri emoten, ta guk ez du gure hartun bez, “e, ¡Que cosa más rara que los niños no querere pan malgro!”.

3. Aitona ezkutatuta frankisten beldurrez

- **Erref**: BRM-096/005
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:07:53. **Bukatu**: 00:08:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Aitita PNVko zinegotzia izana zen, eta ezkutatuta egon zen frankistak sartu zirenean: batzuetan, basoan; eta, beste batzuetan, kortan egindako zulo batean.

Transkripzioa
-Gero pasaten dala, gure atxitxe esan da konsejala "en aquellos años" ba PNVkue, ta guardidxek segidu asko, ta koitxadue beti e piñudidxen lo itzen gauien, ta gu hirurok, imiek, han piko baten azpidxen. Klaro, han ikusten'zan du triskornio, atxiñen ba'kisu triskorniuek zelakuek eruten'zan dauien; han dxirtadie, e hamen dator izeko, hamen datos guardidxek. Ta okitze'zan du kortan behidxek ote'zan dien lekuen, solo handi bet eindxe ta koitxadue han barruen e gordeta. Ia ze zan ta, PNVko konsejala esan dala ta personie holan.

4. Aintzane deitzeagatik, egurra

- **Erref**: BRM-096/007
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:08:41. **Bukatu**: 00:09:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:
Moja Karmelitetan ikasi zuen. Oso diktadoreak ei ziren. "Gloria" deitzen zioten eta ez zuen kasurik egiten, bera Aintzane delako; horregatik, mimenkada ederrak jaso zituen. Ordaintzen zuten ikasleak eta ez zutenak zeuden, eta azken horiek zabaldu behar izaten zuten bekorotza mojen baratzean.

Transkripzioa
-Gero ba eskolara, ni hamalau urterarte eskolan ibil nai e, Karmelitasetan, baie Karmelitasetako mojak, unas ditadoras, malas. Nik Aintzane dakotela izena, ta zemat sartada hartun doten! Klaro, "Gloria!" deitxutzen doztie, ta nik kontesta bez, "Gloria!" ta nik kontesta bez. Atxiñe mimena ba'kisu? Ezetu'zu mimena ezta? Horrek mimenak. Halako mimenagaz sartazue lepuen. Nik kontesta bez. "A mí Gloria no me ha puesto la madre el nombre más que Aintzane. Yo soy Aintzane". Ta egun-egunien kastigada- horretan, or Karmelitasetan oten'zan da distintibodunek pasaten esan dauienak, hametik aulako zertxugaz, ta gu koitxadak, diro bakuek. Solo bat okitzen'zan dauien han, ba, bekorotza ekarten'zan dauienien e zerak, gu koitxadak, hara solora igaroten, paga bakuek. Entzuten'zu?

5. Goian zerua eta behean lurra

- **Erref**: BRM-096/008
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:09:47. **Bukatu**: 00:11:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Aintzanek etxeko lapikoa ipintzen zuen hamar urte zituenerako. Amak eta

izekok fabrikan lan egiten zuten familia aurrera ateratzeko. Gazterik alargundu zirenez, "goian zerua eta behean lurra" geratu ziren.</p>

Transkripzioa
-Asiske aulan izan da geure biximodue. Gero, hamar urte allega dxast, hamar urtin e neu esan naielez neskarik zaharrena, amak eta izekok esaten zan doztie: “Aintzanetxu, hamen imin dxot zeure eguerditxue, indxabie, eitxen ta eskolara orduko, eingo’tzazu patatatxuek sartun ta urditxue erreko zazu lapikuri. Dxangozue zeuek ta arrikotxue gero geuk ingu gatosenien biharretik.” Bidxek etorten zan di eta, ta haur halako baten, etorritze, gauien datona: "Aintzane?" ta "zer?" "Urdei zatitxu be pe ez dazu itzi, lapikuen." “Ama, zelako urdidxe? Nik ez dot egin erre baño.” “Ez dotzut esan barrure etzateko ta gero etzateko, eitxeko prijidu ta etzateko?” “Ai nik ez daitz, baie ez in kasurik pe, ain gozo dxan du gosigaz etor gariz ta.”
-Hamar urtegaz ia...
-Hamar urtegaz ia!
-Inddaba lapikoa e preparetan.
-Klaro! Eskola orduko ze ama ta koitxadak ez dauie okiñ iñondik, baserridxe bai, ta soluen itxen zan dauie bihar, ta artzizan du, goserik ez du okiñ e? Hori beti, ta iñori emon dxaten be bai asko. Gure amak eta asko lagundu dauie, eurek esan arren, beti esaten zan dauie gure amak ta izekok: “guk ez dulez okin negar itxeko astirik pe, gizonari, ze umiek, bost ime okin dxus bidxon arte, ta iñondik ez e, goidxen zerue, ta beien lurre. Asiske haulan biximodue.

6. Gizona arrantzalea eta baserritarra

- **Erref**: BRM-096/011
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:13:25. **Bukatu**: 00:15:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:
Hogei urterekin ezkondu zen. Senarra arrantzalea izan da, baina baserria ere gustuko izan du eta asko laguntzen zuen baserriko lanetan. Itsasora joan ezin zen egunetan ondo pasatzen zuten, lan apur bat egin, kartetan jokatu eta horrela.

Transkripzioa
-Gero, hogei urtegaz ezkondu nai.
-Gazte!
-Bai, atxiñe halan ezate zan da, hogei urtegaz. Arrantzalie esan dot senarra, seme bat okin dxot, berton, amen bixi dana, Gotzon. Ta a gizona be neugaz batera etorten zan da hona, ze ameko osabak esaten’zan dost: “Aintzane, bedarra batzie dakot ta otorko zara?” “Bai” ta izekok, Eragone okin dxau izena, esate’zan’tzo: “Kontuz Gaspar!, ze horreri, e, pistidxek ikaratu itxen dauie ta, kontuz e!” ze hau esanda total e, okin dxauelez anaidxe bat honek, kapitxena gazte-gaztetatik, geixue etorri, asurretako geixue etorri, ta on zan pistidxelez haulan e. Baie, herritzik etorten zan ¸jatzo jentie ikasten, makiñiste ta patroi itsosorako, ta total esan dau e baserridxe alegrie. Lagunduteko be etorten zan ¸jatzo jente guztidxe. Ta

diñotzuten modun e hori zera batzien, bedarrak, ta halako baten igual batunde bedarrak, ikusten zan dauelako siontzoie bat, nire aldarridxek aurtik gora: “Papaue!” esaten’zan’tzo nire izekok “ez dotzut esan?” Bueno, hortik ikusten’zan du farola itxosoku be, “Salvador, gaur etze, bidxar etze egune dakosu farol gorridxe dau imindxe ta.” “Eragone” esate’zan’tzo “Iala, benga, eratzi esniek, ta ensegidaten imiñi afaidxe, kartaka in bi’du gero ta.” Ta pasaten’zan du berton egunek, haulan geure biximodue.

7. Izeko haserre mojarengana

- **Erref**: BRM-096/013
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:16:04. **Bukatu**: 00:18:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Behin mojek eskolatik bota zituzten bi lehengusinak txinoentzako dirurik ez eramatearren. Ama joan eta esan zion mojari bost txino zeudela euren etxean, eta berriz dirua eskatzen bazien abarketarekin lepoa apurtuko ziola.

Transkripzioa
-Haur, amen txaltxu, txaletak non dauz amen indxe,
-Bai.
-Hor e? Hor okitzen’zan du solo eder bat. Solo eder bat, gure ama ta izeko, ba euren biharrak eindxe gero, patatie atateN, nego gustireko patatie okitzen’zan du te! Ta halako baten, ni eskolan ta nik ez doten dxakin, halako baten negarres bidxek solora. Ta diñotzo gure izekok: “Zer pasaten da ba?” gure izeko ezan dalakon garbosiaue gure ama baño, gure ama trankiltxuaue ezan da, ta izeko esan da mas e esatilez gizonak pe etzon ingo hareri burlerik. Ta “zer pasaten da? Begoñe, Polixene, zer pasaten da?” “Zer pasaten da? Mojiek etza gaitxus e eskolatik kanpora.” “Zer dala ta? Zer eixue ba?” “Guk ezebez e ama, txiñuntzako dirorik ez dulakon erun.” “Zer? Txiñuek? Zuek paño txiño handidxaurik, bost txíño ez kauz ba etzien ba?, zazpi dxateko, aitxe bako imiek ba.” Garbosie, eurek pañelue imindxe ametik haulan, beran amental ta aberketak diferentiek bidxekaz, han dxatok mojatara. Dxoten dau trinbie ta: “Ia, honen mojie nor dan e, esan mesedez urteteko” Porteriek. Urteten´tzo mojiek, ta bermiotarra ezan da mojie e, kabokue. “ Ia, honek imiek ze in dxauie eskolatik kanpora botateko?” diñotzo. “Ba txiñuntzako dirorik ez dau ekarri.” “Eurok paño txíño handixaurik, bost txiño dakuz guk etzin e! aitxe bakuk” ta esantzon “ Kuidadito beste baten nire umiek kanpora etzaten bazu, txiñuntzako ez dauelakon ekarri dirorik. Hau aberketie ikustenzu?” diñotzo “haunegaz lepue be apurtu ingotzut!” diñotzo mojiri, entzu’zu?

8. Familia osoak izen euskaldunak

- **Erref**: BRM-096/017
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:20:53. **Bukatu**: 00:22:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Izen euskaldunak izan dituzte familian. Politxeneri "Poliparka" esaten ei zioten mojek. Aintzaneri, berriz, "Gloria". Familiako izenak esaten ditu banan-banan. Horietako bitxiena "Eragone".

Transkripzioa
-Begoñe ta Aintzane, Iñaki ta Dxulen.
-Ta, Polixenek ez deko tradusiñorik?
-Ez...
-Begoñak bez?
-Poliparka imitzen'zan tzoie, Poliparka.
-Poliparka?
-Ba, ta bestik be, harek be e'tzon entzungo, bai.
-Ba Poliparka!
-Edo Miren, Miren Polixene esan dalez, Miren deitxuko'tzoien igual.
-O Maria.
-Hauri. Baie niri, niri in dxostie
-Baie zu bautisotik Aintzane, ez ta?
-Nik Aintzane dakot nik beti. Danok okin dxu euskeraz guk e? oiñ haunek sartun zin horrek sartun zinien, ein dxostien tradusiñuen Gloriagaz, ta beitu lelangoko euskerie kanbidxeteko etor zanien, akordaten zara? Urte asko diez, zemat urte? Pillo bat, ba Bermion lelau lelau ezan naien, neu ta aiztie dxun garisenak, e? Esan'tzaten "Imindxe imiñi, nik hori izena ez dakot hau baño" Ta nire semie be Angelegaz on dalez orduen, ezin esan da euskeraz imiñi tze, imin'tzaten hareri be, euskeratute Gotzon. Guk danak taku euskeraz. Nire aiztie Begoñe, hiru alaba dakoz harek, Goiuri e Dxaione ta Miren Bego. Ta harek lobiek dakoz, erdikuek dakoz alaba bi: e Lorea...
-Bai baia horrek ia gaztienak bai.
-Horrek gaztiek.
-Baia len eta, zuen osaba-izekoak eta be bai? Izen euskeldunek?
-Danak euskerak, esango'tzutez neuk: zarrenak Paul, Migel e Mikel, e Sabin ta Imanol. Ta, izekuek ezan dizelakon lau anaidxe ta lau arreba, Eragone, Maria, Juana ta Florentina, Polentzi, gure ama.
-Ta Eragone ze izen da?
-Ba hauri, ez dako tradusiñorik, ze politzo ezta? Guztaten ¸atzu? Lobik takotzo Eragone, lobik takotzo.

9. Bermeoko ikastolaren hasiera

- **Erref**: BRM-096/020
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:23:54. **Bukatu**: 00:25:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Bermeoko ikastolako lehenengotariko haurrak eurenak izan ziren. Hamar bat ume izango ziren hasieran. Etxeetan atea jo eta "euskeriek ez dau balixo" erantzuten zuten askok.

Transkripzioa
-Fundekuek ikastolan geure imiek ezan die, nire semie sei urtegaz, Dxaione, harek e urte bete gitziau, ta ikastolie funde, ta Bihotza lobien, lengusiñien alabie, hirurek. Ta ikastola barridxe eitxeko, fralletan ibiltze'zan garie, fralletan bar bat on zan, ta han koltxoneta ganietan imiek, e? entzuten'zu? Ta gero andik atzeko mandan in sauien halako zertxu, lokal bat, gero hara bajatu zien. Hogei, e, zemat pagaten'zan du? Hoge ta bost euro edo holakoren bat e, andareño bakotxa.
-Hoge ta bost pezeta
-Baie Bermion, batun eziñik e lagunek e, ikastolarako. Zemat ezan gariz ba? Hamar ime ezan gariz batun garizenak herri guztidxen? Atitan dxo ta, ati dxo ta, eitxen zauie "euskerik ez dau balidxo" ta, atin dxo ta jentiek, gaur PNVkuek tizenak, dizenak tizenak, handidxek tizenak, haur be ikastolie in bidala ta, hamar urtegaz gure imiek kanpora, ez ta on gidxau lekorik eta, hori barridxe eitxeko, hori ikastola barridxe itxeko. Ta gure amak eta, esan'tzuten moduen, hor txaletatan onduen, baserridxe edo soluk okin dxauielez, gure amak eta dirijidu, etze bat on zan hor e, matrimoniño bat, ia zaharrak, ta hor eitxeko ikastolie. Bakixu non dauen Eleisalde ezta? Ba beitu zemat urte dan, nire semiek takoz berroge ta bederatzi urte, hamar urtegaz urten dau eskolatik, ez dalakon egon lekorik eskolarako, hiru mille bana ogorloko imin dxun e, lengusiñe bakotxak.

10. Gotzon Garitanonaindia apaiza

- **Erref**: BRM-096/022
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:27:30. **Bukatu**: 00:30:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Gotzon Garitaonaindia Mañuko abadea oso etxekoa eta adiskide handia zuten. Sarri etortzen zen bazkaltzera. Herriaren alde lan asko egindako gizona, bai klandestinitatean bai behartsuei laguntzen.

Transkripzioa
-Herriko jentie esan'zu, jente askok lepoa emon'tzuela
-Klaro, euskeriek ez dau balidxo ta.
-Baia hor egongo zien be abertzaliek eta laguntzi laguntziñoa emon bienak ez ta? Edo ez? Edo zuek azkenien etzekoak?
-Ze esango'tzut ba? Laguntziñuek ba, ze esan got, edo ikarie eon da, edo zer eon dan ez daitx zer laguntxu, badaki nik ez karizena ezan hiru launtxu baño. Begoña Gastañero ezetu'zu? Euskaltzaindiakue?
-Baia entzunde badekot, entzunde bai.
-Horren semie be bai, ze horrek ikastolie emoten'zan dau. Gotzon Gonai… Garitonaindia ezetu'zu?
-Ez, baia entzunde hori be bai, euskaltegitzik eta…
-Bai, hori geure etxe-etxeko, etxe-etxekue ezan da, Mañukue ezan da hori koitxadue, hori sartadaka hil dxauie, ze horrek eliziri asko lagundutzo, en akel… klandestinidadien, Frantzire pasaten ta guztien, ta koitxadue biharrien fabriken ta biharrien, ta gure etzera etorten'zan di eta klaro, Bermion lau aiztek ero, Teodoro Anasagastire kanbidxe zien, horrek etze

barridxek in zinien Intxaustitzik. Ta lau aiztek bizi'zan die, hirugarrenien gaztinak, laugarrenien zaharrenak. Ta horregaz amistade total handidxe okin dxu, ta otorten'zan da koitxadue biharretik: "Ia non dauen usein goxuena han dxan got eguerdidxe ta!" Ta e, lentejak asko gustaten'zan jatzo ta gure amak koitxadiek: "e, Floren lentejak takozuz? Ba nik amen dxan got". Dxaten'zan dau ta gure ama koitxadiek imitzen'zan dau salan tunbeta "amen ingo'zu ordu erditxu lo gero biharrien dxuteko". Baie ezan da lagunduteko, harek Mañure dxuten'zan garie ametik gora gu beti imikaz eskolaratik, e, mezie entzuten domekan-domekan, umik artunde ta mezatxue entzunde, bertan elizin aurrin okin dxau berak etzetxue bixi'zan dana, ta juesti jaus esaten'zan tzo, neberi dakola, halako suterraneo bat okin dxau berak, ta koitxaduek, ta esaten'zan dozku han, elizen batun dauen dirotxuk e: "Aintzane, Polixene ta Begoñe?" ta, "Zer?" "Han dakotez batun dunen dirotxuek, eta harek imiñi bakotxa berin lekotxutan, fulano dau hildxe, ta harek be ez dakolez koitxaduek nondik, aunke sea zapata batzuk erosteko." Haulan ezan da haren biximodue, gure etzera etorten'zan da koitxadue, ta Bermion esaten'zan'tzoie: "e, han dator a abade marikolle, zapatillekaz" Baie harek asko, herridxen asko lagundu dau harek, asko-asko-asko.

11. Lan asko eta irabazi gutxi fabrikan

- **Erref**: BRM-096/024
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:31:13. **Bukatu**: 00:32:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Goserik ez dute pasatu baina estu bizi izan dira. Fabrikan goizeko seietatik gaueko hamarrak arte, astean berrogei ogerleko irabazteko. Lan gogorra zen.

Transkripzioa
-En akellos años koitxadak gu, ia ba, biharrien e geure denpora guztidxen, ez du okin txiki bet eguno; goserik ez du okin, baie dirorik bez, ez du okin nondik eta. Atziñen urridxek ezan dis e irebazten'zan duzen diruk, ze fabriken eon naitzen denporan be, ez dot nik asko eiñ fabriken, baie igual goizeko seiretan dxun biharrien, e? ta gaueko hamarratararte ba igual aste guztidxen berrogei ogorloko, zentzak allegaten'zan'tzu horrek ba? Ezebez bez. Ta han astulez itxen'zan'zun bihar fabriken, han ez zaitxus konsideraten'zan e, umie zarala ta, gaztie zarala ta. Ze atxiñen galdarak, ta harek galdarak berotuteko iketza eon da, ta iketza igaroten bizan da, ta gu harek zeztuk artunde, zuk takixu, harek pisuek, ta ez pazara kapaz etzera. Ta dirue bizan'zulez, ba eiñ in bizan'zu. Ein dxot latak, gizonan biharrak be intaz, latak solda, soldadorakaz.
-Danatarikoak.
-Asiske, portun, portun ein dxot bihar, motorratan.

12. Ama eta biak basora egurretara

- **Erref**: BRM-096/026

- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:33:11. **Bukatu**: 00:34:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:
Basora joaten ziren ama eta biak egurretara. Ez zuten dirurik ikatza erosteko. Buruan ekartzen zuten karga. Libre zen basotik egurra ekartzea.

Transkripzioa
-Sue eitxeko basora, egurretan, lagune, ametik bera. Hau bidie in barik eon zan, hortik bera bajaten'zan gariz, egurke, burun artunde. Atsaldien kalin planta, harek txikitxute kamarara idxen, ta igual e topaten'zan du leku, "Aintzanetxu dxun in bi'du ba". Neu esan nai basokue gehidxen, zaharrena neu ezan naielez, amagaz, "dxun in bi'du lastana ba e afaidxe imitxeko ez daku zerik eta otabarra edo piñue edo zozer ekarri in bi'du te". Ta dxuten'zan gariz, ta ikusten'zan gaitxuzenin lagunek, "e, zelako egur ederrak, topa in bi'tzaku lekue horrek non topa dauien", ta gure amak: "Aintza, Aintzanetxu?" ta "Zer?" "Dxun en bi'ku ze harek topa ingozkue lekue ta bat be barik itxiko gaitxu." "Ama, ostabe? Ostabe? Ni kantzata nau te, ostabe?" etorri in bihar egurretan. Ezta egon iketzik ez dirorik erosteko ta, laguntxu, haurrek danak ein'taz.
-Eta zuen basoak zien horrek edo?
-Bai! Bakotxak beranak dauz hor basuek, bai.
-Ez, ez dakit, igual baten bati paga...
-Ez, ez, ez libre eon da, zeuk kusune, jentie dxuten'zan da, errotatatik be dxuten'zan die karrugaz e piñuk etxaten eon zinin hor, ta jentiek hortik be ekarten'zan'tzuz egurrek. Baie gu en jeneral ametik gora, ametik edo kabotik, baie en jeneral ametik gora.

13. Ume-jolasak

- **Erref**: BRM-096/028
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:35:15. **Bukatu**: 00:37:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
"Tropaka", "andaka" (txorromorroka), "tabaka", "kromoka", "jangaka", "pillotxaka"... ibiltzen ziren. Neska eta mutil batera. Oso kale alaia izan da eurena. Behin lehengusinari panpina ekarri zioten, kartoizkoa. Aurpegia garbitu zion eta akabo.

Transkripzioa
-Ta ze zetara olgeten zenduen ba?
-E?
-Zetara olge?
-Tronpaka, andaka…
-Andaka?
-Bai, andaka ta: haulan planta, ta handik salta lepora, lepora salta; nautike

ta pasoka, nautike ta pasoka, planta handik eta saltaten; tabaka; kromoka, dxangaka…
-Dxanga?
-Dxangaka, baki’zu zer dan? Basie imiñi haur ez ta? Ta aulako zerak e, haulako zer batzuk, burdiñeskuek eta zeiñek sangaka hobeto; pirotxaka, pirotxaka palo bat imiñi, puntek atata ta zeiñek e zerau, ta gero konta, e?
-Mutillekaz be bai?
- Bai, mutil dxe enbra, mutil dxe enbra,
-Nahastien?
-Nahastien, Intxaustin, e total ezan da kale alegrie, harek barridxek iñ arte, Atalde ta iñ arte. Atalden e zera beti eon da, e zera dauena, zelan dako izena? Istitutue dauena orain, lehengo istituto zaharra, Atalde, bai; Anasagasti kalie, Atalde? Hor dau, hori istitutue ezan da, bai.
-Ta muñekarik edo, euki zendun?
-Nok ekarkozku ba? Akordaten nai e, neure aiztiri ta lengusiñiri ekarri, koitxadari muñeka bana erregitan.
-Zuok muñekie ez dozue esaten, zelan esatezue?
-Panpiñe, baie atxiñe guk muñekie.
-Andrakille edo ez dozue?
-Andrakille, ez, muñekie atxiñen, guk. Ta, ekartzon ta nire aiztiek lelangoko momentuen in zauen arpidxe garbitxu, arpidxe garbitxonin ta kartoizkue ezan da gero ikaratu. Ze jostaillo okingu guk ba? Ezebez.

14. Herri-laguntzak kanpotarrentzat orduan ere

- **Erref**: BRM-096/029
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:37:08. **Bukatu**: 00:38:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Ez dute inoiz herriaren laguntzarik izan. Lehen ere ijitoentzat eta kanpotarrentzat izaten ei ziren. Behin jertse bat tokatu zitzaion zozketan eta ez zioten eman txukun jantzita zegoelako.

Transkripzioa
-Bai laguntziñuek iñondik be ez du okin e, iñondik-iñondik-iñondik bez. Bermion eitxen’zan da laguntziñuek haurreri jente otorrikueri txe ordun be, jitanuri txe haulakuri. Ze gero, gauez eoten’zan die amen eskolak, e fraillek eta imindxe, abadak eta imitze’zan dauie; ta han Sanjurjon, eoten’zan die gaueko eskolak, ta dxun itxen’zan nai hara eskolara be. Han baten urten dozten, gabonatako bueltan, ta haulan gauzek e errifeten’zan dauie ta, neuri urten jerse batek; kendu in dxoztien, ez doztien emon, nik arpidxe garbi te e onaiélez e garbi txe, arpidxe garbitxute ta erropa desentikaz, ba ez doztien emon, beiñauek tausela hori emon da. Klaro, gure izekok be dxosten dxakin dxauelez, etzin dxosten’zan du guk dana,dana, haulan.

15. Txerrikia landu eta saldu

- **Erref**: BRM-096/032

- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:40:29. **Bukatu**: 00:42:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Bi txerri hiltzen zituzten urtean baserrian. Saltzeko ere erosi eta lantzen zuten txerrikia. Buzkantzak egiten zituzten, oso onak. Txorixoak oliotan sartzen zituen lurrezko ontzietan. Solomoa ere bai. Txintxortak ere egiten zituzten. Beren Iñaki "mutil" ibili zen gaztetan, ordua ematen. Patroi bat etortzen zitzaien etxera taloa jatera.

Transkripzioa
-Eta txarridxek esan'zu zure amak eta saldu itxen'biezela buskentzak eta
-Bai, bi hiltxen'zan duz urtien etzerako. Kasuneskan, kasuneskan imitzen'zan duz gatza eomonda, ta okitze'zan do halako arka bat okitze'zan do, atxiñeko baserriko horrek e, baulek esaten yatzoienak. Han okitze'zan do urte guztikue gatza emonda, ta gantzaridxe, bakizu zer dan gantzaridxe ez ta? Gantzaridxegaz eindxe txorixuek gantzaridxen barruen, koipie eindxe, horrek e potik e seramikakuek horrek, horretan okitze'zan do. Ta solomue, solomue sikatute, txiki-txiki-txiki-txiki indxe olidxotan harek, itsosorako ta danien maletie imitxeko, horrek.
-Ta etzerako bi txarri, ta salduteko?
-Salduteko ba, urdi asko ez dun saltzien, saltziko be aparte erosten'zan dauie eurek, saltziko, bai. Baie buskentza asko, esaten'zan dauie: "Pellunekulako buskentzik eguno ez du dxango, eskandalue". Ta harek txintxortak eta, etzera etorten´zan die guri jentie, arrantzalik: "txintxortik pakozu, txintxortak? Igual txikiteorako harek txintxortak guzta.
-Txintxortak zeri esate'tzazu?
-Ba hori gantzaridxe urtuten dana geratzin dana? Hauri de txintxortak, esati lez urdidxe be itxen bazu, bakizu zelan e ikoldute geratuten dan, ba haurrek tiz txintxortak. Ta gure Iñaki mutil e motorrien, ta bakizu atxiñe mutillek orduk emoten dxuten'zan diz etzitara, gizonari: "e, fulano! Zortzitako ordue; bengano! Zortzitako ordue". Ta patroi bet etorten'zan da gure etzera a ello, zeitxik? Gure amak talotxuek itzen'zan dau, urune be okitze'zan du arkan, baserritxarrak esan garin arren, ogi modorik be ez dalez egon, ba talue, ta asmaten'zan dau harek e noiz eongo dan talue ta etorten'zan da, ta gure amak emote'zan'tzo: "Aiba! Euren afaidxe dxateko" ta, kolkuen barruen eruten'san dau beran e, talotxue, goxo.

16. Buzkantzak zelan egiten diren

- **Erref**: BRM-096/033
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:42:53. **Bukatu**: 00:46:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Buzkantzak zelan egiten diren. Esteak errekan garbitzen ziren. Estea betetakoan "galdostu" egiten ziren buzkantzak, hau da, ur irakinetan pasatu.

Transkripzioa
-Buskentzak zelan eitxen bazen bakizu?
-Estigaz, haulako zera sartunde haulan.
-Ta ze sartze otzun?
-Ba bisperan edo egun bi lelau itxen'zan do porrue txikitxu, kinpulek txiki-txiki-txiki-txiki in ta porruek txiki-txiki-txiki. Harek, esan'tzuten moduen e zerantzako, txorisuntzako e hori gantzaridxe okitzen dauela, aparte okitxen'zan dauie beste, beste pote bat, e horregaz, koipigaz. Ta haregaz koipigaz prijidu horrek ondo, kinpulie ta zera, porrue. Ta aparte gero egosten'zan dauie arrosa. Hotzitxuten'zan danien, eitxen'zan dauie hori nahasta, ta gero, txarridxe hiltxen zunien, haren odola artzin'zan do, ta gero haren odola nahasta. Ta erain-erain-erain dxe, imitze'zan dau gatza ta piper gastalekue ta klabue, klabue...
-Zer da hori?
-Halako zertxu bat esaten'zan da, zer bat eoten'zan da denda bat, errotigaz eidxoten'zan dauena, klabo. Ta horrek piper gastalekue bestie, nahastaten'zan'tzoie hori, ta gero zatitxuk indxe, urditxue eta haulan, bera goxotuteko bera zera.
-Ta piper gastalekue, zein da hori?
-Ez dai ba, baltza esaten'zan da piper gastalekue, hor eidxota emoten'zan dozku hor dendan: "ekau ez dai zematena piper gastalekue", klabue ta horrek nahastaten'zan´tzuz, gatza ta itzen'zan dauie. Gero estiek garbi-garbi-garbi in bizaten'zan diez, estiek, horretan errekara, garbiten harek, klaro. Harek garbi-garbi-garbi-garbi in, arraska danak, bueltie emon ta okitzen'zan'tzuz garbitxute aska baten gure amak eta. Ta gero harek halako enbudo bat, enbudo bat haulan, imiñi estiri sartunde haulan, ta eskuz, oiñ makíñen itxen dauie, eskuz itxen'zan du a. Ta gero galdoztu saltziko, galdoztu...
-Zer da hori?
-Ba ure imiñi irikitzen, ta a odola ta gauzie kendu, dxateko moduen imiñi ia, galdoztu.
-Ta galdoztu zer da bakarrik buskentzan e ganien edo?
-Amarraten'za'uien e haulan zer bategaz.
-Bai hari bategaz edo kordela edo...
-Mimen zati bategaz, amarra haulan txorta bat, sei edo zazpi ta han zertun, ta sartun ta urten, han okitze'zan dauie, galdoztu hauri de.
-A galdoztu de...
-Hauri berotu hauri...
-Gora ta bera ibiltzie sartzen.
-Han okindxe apurtxu baten, bera odola iñ arte gogortu. Ta gero haurrek atara ta saldu.
-Hortik be jornaltxue.
-E ba, baie ez ta ezan dirorik atxiñe, ze, ze diro esan ta atxiñen laguntxu ba? Zapata batzuk erosi ta kabo, klaro ez ta eon besterik eta.

17. Falanjearen sermoiak entzutera behartuta

- **Erref**: BRM-096/035
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:47:15. **Bukatu**: 00:49:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Batzokia izandako etxea hartu zuen beretzat Falanjeak. Fabrikatik ordubete galdu eragin eta behartuta joan behar izaten zuten hara "euren inuzentekerixek entzuten". Errebeldea izan da Aintzane, ez zuen amore ematen. Bandera edo "txori" espainiarrak eramatera behartzen zituzten eskolan baina berak kendu egiten zituen.

Transkripzioa
-[…] Fabriketik oblige itxen'zan gaitxuz gu falanjera dxuten, falanjie ezan da geure batzokidxe, han eon die, eurek esan die dxauiek falanjekuk. Ta ordu bete galdu erain itxen dozkun fabriken ta hara dxuten'zan gariz e euren iñuxentekeidxek entzuten. Kanti, kanti be zelan ezan da? Auntze derrepentien ez yast akordaten. Ta han eitxen esan dozku, ta obligeta oztantzien etzera, ez dau biharrik, hara oblige itxen'zan gaitxuz dxuten, falanjera.
-Ta fabrikakoak falanjekoak zien ala?
-Ez zin esan baie ordun antza ditadorik e haurrek obligeten'zan txusie, entzuten'zu?
-Ta ze eitten zenduen? Falanjera juen ta…
-Ezebez, iñuxentekeidxek kanta, eurek diñoienak, ze esango'tzu ba? Cara sol da haurrek gauzak kanta. […] Eskolara sartzin'zan garisenien Cara sol da nik eguno bez. Ez dai nor otor da, ta txoridxek imindxe amen nazionalak, handik mojak, jesus! Zertzuk esaten'taz eurek mojari, ez dot kure esan. Ta gure txiki bidxek, gure txiki bidxek, txikidxek esaten'zan'tzaku aizteri, ta ni rebeldie ezan nai e, horretan esango'tzut, ni ezan nai rebeldie, nik ez tzat parkatuten'zan iñori be. Ta neure umik ikusi, neure lengusiñi ta aiztie ikusi bertan española amen txori handi bategaz, e atxiñe! Ni dxuen ta arranka, nik kendu, alla kuidauz. Total ezan nai rebeldie, "las cosas como son!"
-Eta hori eitziarren sigorrik edo?
-E, alla kuidau, nok dxakin dxau nok kendu'tzon ba? alla! Harek urtenkeran Karmelitasetatik, nik txoridxek kendu: "beran ama txarridxeri imitzi dakotzo horrek txoridxek" esanda.

18. Euskadiren alde lan asko egindakoa

- **Erref**: BRM-096/036
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:49:15. **Bukatu**: 00:50:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Aintzane oso iraultzailea izan da, ez du beldurrik izan. Asko egin du Euskadiren alde. Baserriz baserri ibili da zigortuentzat janaria eta gauzak biltzen.

Transkripzioa
-Billurre be eukiko zenduen?
-Ez dot okin atxiñen ikararik e, total ezan nai e rebulusionaidxie e, ni? Oingo, atxiñen e, Jesus! Nondik e nai ibilli ni? Nik euskadiaitxik in dxot, ta gure jentiek in dxau, e? ez neuk esateko, ez neuk esateko, kariñotxu. Euskadiaitxik asko, asko, sigortute be on dizen gustidxentzako. Ni ta izeko ibiltzen'zan garie, ametik, baserri guztidxetatik batzien, beitu barik nor

dan, euskaldune dana, herriku dana, batzin gauzek hareri eruteko gabonatan de dxaidxetan.

19. Kontserba-fabrikako lana

- **Erref**: BRM-096/039
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:59:06. **Bukatu**: 01:02:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:
Antxoari burua kendu eta gero "enbaja", latan sartzen zen. Atunari burua beste batzuk kentzen zioten. Trontzoak egin eta egosi egiten zen. Kipulak txikitzen ere jarduten zuten; berakatza, ereibotza. lehortzen jarri, beltza kendu, "enbaja... "Lateruak" eta "galdareruak" ziren fabrikako gizon bakarrak. Lan gogorra zen, eskuak urratuta amaitzen zuten. Jornal txikia, 40-50 duro astean.

Transkripzioa
-Ta hori esan'zu bi e biher eitten zendula bai fabriken eta fabrikako biherra ze biher zan?
- Gogorra, ba lelau atune antxoatan, buru kendu antxobiri, ta gero enbaja, tiñetan garbitxu, ta gazti zaran arte ba andidxek e, andrak e zertun, ordaindu, ta guk atara. Ta gero, antxobie itxen'zan dunien, ba salasoien imiñi. Horrek harri manduek, salasoiekaz pegateko, emongo'tzut antxobatxue probateko, neuk eindxe dakotazenak, ta horrek zertun. Gero atune, atune kentzi'zan do burue, nik ez dot kentzi'zan, andrak eoten'zan die a ello-kuek buru kentzi'zan dauienak. Bai, guk eguek kendu, ta barroko tripek atara, gibarrollek eta horrek. Ta atxiñen gibarrolle, okitxe'zan dauena atunek, tiñetan imitze'zan du, ez dai zelako medikamentue itxeko erute'zan dauie, bai […] ta harek atara, bai haunek guztidxek urrutute okitzen'zan'duz e? Eskuk, atxiñen guanterik be ez talez eogon.
-Klaro!
-Urrutute okitzen'zan'duz. Ta horrek, gero horrek trontzoiek egin, ta kosedoratan, kosedorak on diez, han handidxek ta hor e itxen'zan die egoxi, muerigaz. Ta solo bat okitzen'zan dauie e gure fabrikekuek, ta hara solora dxuten'zan gari kinpuletan, kinpulek txiki-txiki-txiki indxe etxaten'zan datzoie hareri, lau edo bost zati egin kinpulek, ereño zati bet da berakaz zati batzuk, ta harek egoxi haretan zeratan. Kajak oten'zan die haulan, plegata imitzen'zan'zuz, horrek biharrak. Ta egosten'zan dien atara. Ataten'zan danien, otzitxuten'zan danien, imitzen'zan du parrilletan, sikatu arte, egun bi edo pasaten esan danien, orduen asaltxu kendu, da imitzen'zan dun atzera sikatuten, euren zerak, trontzoitxutan, trontzoitxutan, sikatuten. Egun bi edo haulan pasaten'zan danien, ba harek baltza gustidxek kendu, arraska ta garbi-garbi imiñi. Ta gero haulako zertxu batzuk oten'zan diez ebaitxeko kutxillugaz, ze lata a meide, ta igual okitzen'zan'zuz zeuk lau andra, ta zuk bat aurrien, ba zuk hareri a basto emoteko, ebaitxe, ta harek enbaja, enbaja latatan ta gero makiñetan pasa, errebise zelako faltarik padako, oridxue etxa hareri txe danak, eze falta barik, ta haurrek gauzek.
-Ta gizonak be egoten zien?
-Ba, lateruk, lateruk ta galdareruek, bi edo hiru oten'zan diez horrek galdareruk eta horrek.

-Eta jornala?
-Esan’tzut ba! Ezebez, berrogei ogorloko igual, berroge ta hamar, ezebez. Baie zemat bihar indxe?
-Ord asko?
- Joe! Ez tiño’tzut ba? Ba goixeko seiretako igual dxun da…
-Zutunik?
-Ta…

20. Ama eta izeko fabrikan lanean

- **Erref**: BRM-096/040
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 01:02:11. **Bukatu**: 01:03:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:
Amak eta izebak beste lan egindako gizonik ez ei dago. Kontserba-fabrikan egiten zuten. Askotan gaueko hamabiak arte ez ziren etxera agertzen.

Transkripzioa
-Amak eta, gure amak eta Garabillasen in dxauie bihar, danatan in dxauie gure ama koitxadak eta, gure ama koitxadak in dxauien beste bihar! Ta e, gu hasteko, gitxi de, ez ta eon gizonik harek in dxauien beste bihar, ez ta eon deretzorik! Harek in dxauien beste bihar koitxadak. Ta larota hamabi urtegaz hil yast ama, neure ama zaharrena, bera geratu de azkaningo. Gaueko hamabidxetan ta sarri dxun gari ni ta aiztie, gure ama agertuten ez fabriketik: “baie non demoniño dau gure ama ba?” oireko: “Ama, bai ondiño?” “Ta ze in bidu ba?” Garabillasen oten’zan diselez eurek imitxekuk e, horrek errepartuek e etxateko kajak dxosten, kajak atxiñen, kajatan dxosten’zan dun, kajak dxosten, ordutararte.
-Zure aman sasoien eta alarguntasun kontuek eta?
- Ezebez! Ez du okin txikirik be, iñondik bez.

21. Aita itsasoan ito zen

- **Erref**: BRM-096/041
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 01:03:05. **Bukatu**: 01:05:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Aita itsasoan ito zen Castro inguruan. "Galernakoak" bai baina beren aita-eta ez ei zituzten sekula aipatzen. "Izaro" eta "Osasuna" ontziak elkar jo eta hondoratu egin ziren. Aitak ez zekien uger egiten (igerian) eta ito egin zen. 11 lagun ito ziren.

Transkripzioa
-Da zure, zuen aitte zein zan?

-Itxo.
-Desa-desagertu edo tope...
-Ez, ez, ez zaitxuzen topa, da ori kontun okin’bi de eguno gure aitxe ta e tzusina aitxetu, eguno. Beti aitxetu dauie galernakuk, galernan itxo disenak, bai gure aitxe ta eguno bez. Badakotez nik e erretratuek harenak topako lekitxutea nik haur nonon dakotez ta, ikusteko zuk.
-Zuk ez dozu akordun eukiko?
-Zelan okin got pa, urte bi txe erdigaz nik zelan esetukot pa! Dxulenek pai ezetu dau aitxe, bai nik ez, nire aiztik hamar egun okin dxau, San Roke egunin dxaidxo’zan, hogeta zazpidxen itxo zan agostuen aitxe.
-Da nik haur e...
-Nun, nun itzo zan?
-Isaro da Osasuna...
-Bai.
-Kastroko bueltan.
-Kastro bueltan.
-Gure aitxe ta dxun zien herritxik euren e zera indxe, atune deskargata, ta bestie etor zan onantz, ta antza alkarreri berbetan duzela txoke in zauien.
-Euren artien txoke?
-Bai, agostue zan ta, ta txokie ta auri gure ama, aitxek ez tauelez dxakin uger, osabak dxakin dxau uger, baie osaba be itxo in zan antza golpie artunde edo ez taipa zelan. Hamaike itxo zien, ta beti esaten dot, bai gure aitxe ta ez dako iñok kontuen? zelan esango da hori? Laster ikusko’tsut e hau kentzi’stasunien topako’tsutez haur dakotez ta.
-Ta hamaika itxo zien?
-Hamaika itxo zien.
-Ta, beste-beste batzuk ordun salba zien?
-Bai, ta mutíltxu bet dau bertan erretratuen aulan hildxe, nik konserbaten dot ausitze dana, beitu zemat urte dakoien ta, hiru ta hamazortzi urte ez ta? Gastata be badau bera okitxen, papela barridxek eta atata dakotez baie. Bertan ikuste da mutiltxu bet, e itxosora dxuten zan dana, atrapa zauiena itxota, ikusten da bertan. Haulan geure biximodue lastana.
-Da bestiek zelan salba zien? Baten-batek edo...
-Bai edo ausilidxe edo ohola-oholan baten ganien edo haulan, horrek ez zínak ikusi, antza golpie edo artun zauien edo.
-Zelako enbarkasiñue zan?
-Atxiñen zer bakuek, horrek e latin bat, latin batekuek edo ez tai zelan esaten zan’tzoie.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-23

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com